

►ZARAUTZ/SANPELAIQAK'98

Auzoetako jaiak, SOS

■ Sosik gabe gelditzen ari dira auzoetako jai batzorde desberdinak. ■ «Garrantzitsua da auzo bakoitzak bere nortasuna mantentzea». ■ Udala eta jai batzordeen arteko bilera eskatu dute.

Oraindik indarririk galduta ez duten Santamariak kenduta, edota sendotzen doazen Azken Portu eta Santa Klarako jaiak ahaztuta, lasai antzera esan daiteke herriko auzoetako jaiak gainbehera doazela. Sanpelaioak, Amabirjinak eta Euskal Jaiak antolatzeke hamar milioi pezetatik gora xahutzen direnean, auzoetako jai batzorde bakoitzak 170.000 pezeta inguru jasotzen ditu.

Gari BERSALUZE
Zenbait auzotan ez dago jai batzordearik eta bertako auzo elkar-
teak hartzen du festak antola-
teko ardura. Dena dela, egun,
Urteta, Vista Alegre, Itxas-
mendi, Talai Mendi, Zelai Ondo,
Azken Portu, Inurritza eta Santa
Marina dira jaiak dituzten auzo
zarautarrak. Auzo hauetako
guztietako elkar- edota jai bat-
zordeak bitzen dituen batzorde
edota elkar-terik ez dago herrian
eta, beraz, ez da ia inolako ha-
remanik denen artean.


Azken Portu eta Santa Klarako
jai batzordeak dioenez, «bereziak
diren kasuak kenduta, gainerako
auzo guztietako jaiak beherantz
doaz. Udalarik ez zaizkio batere
interesatzen auzoetako jaiak eta
herrikoak bakarrik nahi ditu sendotu.
Hori ez zaigu gaizki iruditzen
baina auzoetako itotzea ezin dugu
inondik ere onartu. Ekonomikoki argi
eta garbi ikusten da hori. Auzoetan,
aurrekontuaren %8 edo ordain daiteke
Udalaren laguntzarekin, eta gainerakoak
auzokoek emandakoarekin,
nikiek, boletoeekin, txosnarekin
eta antzekoekin atez»

behar da. Herriko jaietan, berriz,
iaz etxuneko ehuna ordaindu zuen
Udalak».

Horren aurrean, jaietako aurre-
kontuak direla eta, urtero Udalak
egiten duen bilerara auzo elkar-
te eta jai batzorde guztiak deitza
eta aurrekontuak non gutxi eta non
gehitu eztabaidatu eta guztien artean
erabakitzea eskatzen dute jai batzorde-
deek. Adierazi digutenez, «hau esan
genien azken aldian, duela pare bat
hilabete, barre egin ziguten. Udale-
txean agintean daudenetik inork
ez du ideiarik ere jaiak nola antola-
tzen diren. Zinegotzi bakarra
ibili da noiz edo noiz jai batzorde
batean».

Egoera larrian

Auzoetako jai batzorde hauek
diotenez, Udala bere nahia lortzen
ari da pixkanaka eta auzoetako
jaiak egoera larrian utzi ditu
dagoeneko. «Santa Marina erdi-
gunean dagoenez, askok hartzen
ditu jai herritarrak bezala eta
desberdina da, indarra du. Azken
Portukoek, berriz, gero eta indar
handiagoa dute, jendeak alterna-



Inurritzan bertako jaiel lotuta daude biztanleak.

ARTXIBOKOA

tiba gisa antolatuta daude ikusten duelako. Herriko festetan
egiten ez diren hainbat kontzertu,
omenaldi herriko eta abar egiten
dira, eta horiekin jendeak bat
egiten du, noski. Udalak horiek
saihestu nahi ditu eta horregatik
ez ditu laguntzen auzoetako
jaiak. Institutuz guztiak bezala,
Zarauzko Udalak ere beti izan du
herri mugimenduen beldurra».

Bukatuz, auzo desberdine-
tako jai batzordeek gogoratu nahi
dute ezinbestekoa dela auzoetako

jaiak aurrera egitea eta zuzper-
tzea. «Auzoen historia garrantzi-
tsua da. Sanpelaio bati edota
Azken Portuko bati esanez gero
herrikoa dela moskeatu egiten
da. Kaleko bati esan baserrikoa
dela eta berdin gertatzen da.
Auzo bakoitzak badu bere nortasuna
eta hori ezabatzen uztea egin
daitekeen azken gauza da.
Ezin dugu Zarautz bakar eta
handi bat soilik bultzatu. Auzo
bakoitzak bere sustraiak ditu eta

horiek ureztatu egin behar dira.
Argi ikusten da auzoetako
jaietan, auzoak zenbat eta sustrai
sendoagoak izan —Azken Portu
edota Inurritza, kasu—, bertako
jaiekin askoz estuago lotuta dau-
dela biztanleak. Auzo berria-
goetan, berriz, zailagoa da garai
bateko ohituren eta sustraien ba-
besa lortzen eta, beraz, jendea ia
ez da batere identifikatzen auzo-
arekin, jaiak ere gainbehera
utzi».

TARIN
BIXKONDE KALEA
ZARAUTZ

Zarautz
a u t o e s k o l a
Zigordia Kalea, 35-1º • Tfno. (943) 83.38.52
Fax: (943) 83.33.47 • 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa)

ELEKTRIZITATEA O.A.
Ondo pasa festak!!
Foruen kalea, 11 • Fax: 83.58.23

SUKALDEAK
GRAN ALMACEN
DE ELECTRODOMESTICOS
ZARAUTZ
DIVERSAS MARCAS
NACIONALES Y DE
IMPORTACION
ZARAUTZ Pol. Abendaña. Pab. 24 • Módulo 12
San Frantzisko, 3 Telf. 943-83 49 60-83 34 67

Txiki
POLIT
P E N T S I O A
T A B E R N A
J A T E T X E A
Bainu eta T.B. duten logelak.
Pentsio osoa
edo pensio erdia.
Musika plaza Tf. (943) 83 53 57
ZARAUTZ

Carrocerías Odriozola
CHAPA PINTURA
Urteta bidea, s/n • Tel. 943-13.07.65 • ZARAUTZ

Bar - Restaurante
SAKANA
MENU DEL DIA
Los nuevos dueños os
ofrecemos un
esmerado servicio de bar
y comidas
Zigordia kalea, 35 • Tel. 943-83 56 30 • 20800 ZARAUTZ

ENDIMABLE
KINKILADENDA
• Lanerako arropa urdiña
• Eskola-mantalak • Mihiateria
• Baserriar jantziak
K.Nagusia, 21 • Tel. 943-13 24 02 • ZARAUTZ